

# Gizarte-erakundeen erronka berriak Euskal Herrian

**Jesús Casquete**

**EHUko Teoria Politikoaren eta Gizarte Mugimenduen Historiaren irakaslea eta UEUKidea**

Euskal Herrian, inguruko gizartearen aldean, gizarte-erakundeek protagonismo eta bizitasun berezia dute. Hain da horrela, mugimendu-gizarte batean bizi garela esan daitekeela. Artikulu honetan lehenik gure gizartearen ezaugarri hori azaltzen duten faktoreak identifikatzen dira. Bigarrenik, baketze-prozesua dela eta zabaldu berri den aroan gizarte-erakundeei zabaltzen zaizkien aukera eta mugen azterketari ekiten zaio.

Comparing to surrounding societies, social organizations play a key role in the Basque Country. In this respect, can be argued that we are living in a social movement society. This article deals first with the factors which contribute to this feature of our society. Secondly, and considering the just opened peace process, the article delves into both the constraints and opportunities that social organizations face in that new political and social situation.

Herrialde gutxi egongo da Mendebalde osoan azkenengo hamarkadetan Euskal Herriak beste protesta-ekintza ikusi duena. Manifestaldiak, kontzentrazioak, desobediencia zibila edota jai-erreibindikatiboak bezalako ekintzak eguneroko gauza direla esan dezake konfidantza osoz kanpotik etorritako begirale batek. Eta alderantziz: gu, euskaldunok, inguruko beste herrialdeetara joaten garenean, politikaren ikuspuntutik leku baretsu eta aspergarri batetik igaro garelako uste sendoarekin itzultzen gara gehienetan. Mobilizazio horien pizgarriak era askotakoak izan dira: ingurugiroa, militarismoa, emakumearen egoera, giza talde ezberdinen eskubideak edota, ororen gainetik protagonismo bereziaz, euskal nortasun nazionalarekin era zuzen zein zeharkako batean zerikusia duten mobilizazioak (hizkuntza, eskubide kolektiboak, eskubide indibidualak...).

Baieztafen inpresionista honek badu datuen babesa. Ekintza-mota zehatz bat aipatzearen, 1996an Madrilgo kaleetatik egun bakoitzeko 3 manifestaldi egiten zen bitartean, Euskal Herrikoetan urte bat lehenago, hau da, 1995ean, gutxi gorabehera 18 manifestaziok zeharkatzen zituzten gure hiri eta herrietako kaleak.<sup>1</sup> Alde nabarmen horrek hausnarketa sakona merezi du: nola azaldu prozesu politikoan eragina izateko horrenbeste ekitaldi izatea gure artean? Zer dela eta horrenbeste protesta eta erreibindikazio-ekintza? Noiztik Euskal Herriko bereizgarri hori? Ondoren, aipatu galdera hauei erantzun bat bilatzen saiatuko naiz. Nire ustez, eginkizun horretan hainbat faktore nabarmendu behar dira. Faktore horietatik guztietatik, izaera politikoa eta historikoa dituztenetan geldituko naiz, nire ustez horiek eragiten baitute gure gizartean egun dugun egoera, hemen interesatzen zaigun ikuspuntutik behinik behin.

Bi faktoreok elkarrekin hartuta esan dezakegu inguruko herrialdeekin konparatuta Euskal Herrikoa mugimendu-gizartea<sup>2</sup> dela, hau da, gizarte bat zeinean gizarte-mugimenduen eta oro har gizarte-erakundeen jokalekua aberatsagoa den eta, ondorioz, hauek bideratutako protesta-jokabideek protagonismo berezia duten. Edo beste hitz batzuetan esanda, era guztietako elkarte, mugimendu eta erakunde sozialek osatzen dute euskal gizarte zibil sendo eta trinko bat inguruko gizarteekin konparatuta. Hau euskal gizartearen ezaugarri estrukturala da, denboran zehar oso astiro aldatzen den bereizgarria.

Beste alde batetik bere hedapen geografiko eta sozialari begira, hala nola azkenengo hamarkadetan zehar erakutsitako egonkortasunari begira, protesta-jokabide hauek eskala esanguratsua eta kontuan hartu beharrekoa lortu izan dutela esan daiteke. Zentzu honetan, lehen aipatu mobilizazio-motek protesta-ziklo iraunkorra osatzen dute: euskal protesta-zikloa.<sup>3</sup>

Euskal gizartearen ezaugarri bi hauek kontuan izanik (hau da, mugimendu-gizartea osatzearena eta urtetan protesta-ziklo batean murgilduta egotearena),

---

1. Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion datuak Z. Martinez-en (1998) aurkitzen dira; Madrilgoak, bere aldetik, R. Cruz-en (1998) artikulua batean jasotzen dira.

2. Mugimendu-gizartearen ideian sakontzeko, ikus. Neidhardt eta Rucht (1993) eta Meyer eta Tarrow (1998).

3. Protesta-zikloen inguruan azterketa enpirikorik serioena, hala nola hausnarketa teorizatzailerik funtsatuena, S. Tarrow politologo iparamerikarrak burutu du azkenengo urteotan (1989, 1997). Kontzeptu honen aplikazio historikoak eman dezakeen emaitzez, ikus. Traugott (1995).

gizarte-erakundeek aurrean duten erronka garrantzitsu bat honako era honetan adieraz daiteke: posible (eta desiragarri) da mugimendu-gizartea izaterari uko egin gabe euskal protesta-zikloari bukaera ematea? Euskal gizartea baketu ahala, erantzunak baiezkoa izan beharko lukeela dirudi; hau da, posible izango dela mugimenduaren bizitasunak bere horretan jarraitzea etengabeko konfrontazioan sartuta ibili gabe. Kontrakoa, kaleetan errebindikazioak eszenifikatu beharra ezohizko protagonismoz, ireki berri den baketze-prozesua eten eta atzera egin duelako seinale izango litzateke. Hauxe da ondoren defendatu nahi dudana ideia nagusia.

Horretarako, jarraian gizarte-erakundeen sorrera eta garapena (eta beraiekin batera, protesta-ekintzak) ahalbidetzen duten faktore politiko eta historikoen azalpenari ekingo diot.

## **1. Historia gizarte-erakunde esparruaren bultzatzaile bezala**

Euskal Herriko gizartea ez da betidanik izan egun bezain oparoa gizarte-mugimendu eta beste erakunde sozialetan. Ebidentzia historikoak halaxe dio. Pasa den mendearen bukaeran Euskal Herria ez zen nabarmentzen era guztietako elkarteak (ateneoak, atsegin-zirkuluak, elkarte kulturalak, e.a.) sortzeko joera berezia izateagatik; espainiar estatuko batezbestekoan zegoen, ez gutxiago, ez eta gehiago ere.<sup>4</sup> Baina mende batetik besterako trantsizio-urteetan, euskal nazionalismoaren adierazpen politikoaren jaiotzarekin batera, egoera aldatzen hasi zen. Izan ere, Sabino Aranak eskaini zion euskal gizarteari “elkartze-printzipio” bat, aurrerantzean erakunde sozialen ugalketa bultzatuko duen printzipioa, hain zuzen ere. Printzipio honen arabera, herri bezala irauteko Euskal Herriari ezinbestekoa zitzaion komunitate bat integratzea hizkuntza, tradizioa, ohiturak edota mitoak bezalako lotura etnohistoriko batzuen inguruan. Asmo horrekin, nazionalismoaren adierazpen politiko bakarra zen PNVk bere hastapenetik elkarte-sare sendo eta askotarikoa sortzeari ekin zion bere ikuspegiak gizartean zabaltzeko modu bezala. Sare hori Bigarren Errepublikaren garaian erabat osaturik zegoen hainbat arloren inguruan: lan-arloa (ELA sindikatua, hainbat sindikatu sektorialez gain –baserritar, arrantza, eta abarrenak– edota arlo sozio-politikoak (Emakume Abertzale Batza, Mendigoizale Batza, Juventudes Vascas, Euzko Gaztetxu Batza, Poxpolinak, Sendi Aldez...) (de la Granja 1995). Aipatu elkarte eta erakunde hauek ikuspuntu demokratiko batetik guztiz zilegia den asmo jakin batekin jaio ziren: euskal komunitatea egituratzea herri-egitasmo zehatz baten zerbitzura, PNVk defendaturiko herri-egitasmoaren zerbitzura, hain zuzen ere.

Lauzpabost hamarkadaren ondoren, eta parentesi autoritarioaren bukaerarekin eta metodo demokratikoaren berrezarpenarekin batera, PNVk estrategia aldatzen du. Orain, euskal komunitatea egituratzeko egitasmoa askoz era eraginkor eta azkarragoan bete dezakeela konturatzen da. Bide hori kontrol instituzionaletik pasatzen da. Lan-instituzionalean murgildu ahala, aurretik osaturik zuen elkarte-sarea kalteturik gelditzen da. Honek guztiak ez du esan nahi PNVk sare

---

4. Espainiar Estatuko soziabilitate sareaz eta elkarte-dentsitateaz, oso adierazgarriak dira GEAS-en ikerketan jasotzen diren emaitzak (GEAS, 1998).

hori erabat desaktibatzen duenik (hor ditugu batzokiak, adibidez), baina bai, ordea, “beso sozialak” pisu espezifikoko txikiagoa izango duela bere estrategian. PNVk utzitako hutsune hori azkar asko betetzen du enbor nazionalistatik sorturiko beste adar batek: Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduak, alegia. Egungo haizeetara egokitua, ENAMek elkarrekin feministak, ekologistak, internazionalistak, kulturalak, giza eskubideen defentsarako elkarrekin, gazte-elkarrekin, e.a. babesten ditu bere euritakopean.

Zer ondorio atera daiteke euskal nazionalismoaren bi adarren bilakaera aztertutik ondoren? Nire ustez, ondoriorik aipagarriena honako hau da: euskal nazionalismoa une historiko ezberdinetan, eta adierazpen diferenteen eskutik (PNV, ENAM), beti saiatu izan da era askotako elkarrekin sortzen bere herri eta gizarte-egitasmoa bideratzeko tresna bezala. Berritoki errepikatzen dut aurretik esandako zerbait: eremu publiko demokratikoari berezko zaizkion tresnak (hitza, aldeztu aurretik mugarik ez duen ideia-trukea) erabiliz gero, eta ez indarraren arrazoia, estrategia hori guztiz zilegia da. Estrategia horrek bizitasun berezia ematen dio elkarrekin eta mugimenduen esparruari, bizkortasun “plus” bat, inguruko gizartearen aldean Euskal Herria berezi egiten duen ezaugarria. Baina kontuan izan behar dugu euskal mugimenduen gizarteaz hitz egiten dugunean bizitza politikoan gizarte-erakundeek duten protagonismoa adierazteko, nazionalismoa dela horren erantzule nagusia. Ondorioz, nazionalismoak gatazka-ardatza izaten jarraitzen duen neurri berean (eta pentsatzekoa da etorkizunean ere halaxe izango dela), gureak mugimendugizartea izaten segituko du.

## **2. Izaera politikoko aldagaiak**

Funtsean, prozesu politikoan parte hartzeko indibiduoek eta taldeek bide bi dituzte eskura: bata, bide konbentzionala, alderdi politikoen eskutik gidatua batez ere; eta bigarrena bide ez-konbentzionala, horrekin hasieran aipatu manifestaldiak, kontzentrazioak eta abar adieraziz. Interesgarria da bi partaidetza-forma hauen arteko harremanetan sakontzea. Horrela, “partaidetza politikoaren burdin legea” bezala bataia daitekeen harremana dugu. Lege honen arabera, eta helburuak parekoak izanik, instituzioetatik zenbat eta eskakizun gehiago bideratu, orduan eta eskakizun gutxiago kaleratuko da. Beste modu batean esanda: zenbat eta gehiago jo partaidetza politiko konbentzionalera, orduan eta behar gutxiago izango dute gizarte-erakundeek protesta-ekintzak antolatzeke.

Kontaezinak dira ondorio hori sendotzen duten esperientziak, besteak beste langile-mugimenduarena, uhin luzeko ibilbidearen ondoren, geroz eta gehiago uko egin baitio bere mugimendu-izaerari bere adar instituzionalizatuen mesedetan. Aipa daitekeen beste esperientzia bat azkenengo hamarkadetan Alemanian bizi izandakoa da: hirurogeita hamargarreneko hamarkadan bertan izandako mugimendu bizitasuna (“herritar-ekimenak” izenarekin ezagutu zirenak) galduz joan da bere erreferente elektoralak izateko asmoz jaio zen Alderdi Berdea sendotu eta instituzionalizatu den abiadura berean. Lehen aipaturiko PNVren bilakaera hurbilekoa eta ezagunagoa egiten zaigu partaidetza politikoaren burdin legearen funtzionamendua ikusteko.

Hauek, eta gogora ekar daitezkeen beste esperientzia askok, irakaspen azpimagarria eskaintzen digute: joko instituzionala eta ez-instituzionalaren artean oreka mantentzea zaila izaten dela; bien artean ontzi komunikatzaileen moduko mekanismoa sartzten dela indarrean. Mekanismo horren arabera, bere nahiak esparru instituzionalera eramateko aukera duen aktore politikoak ez du sistematikoki kaleetara jo beharrik. Hemen "joko instituzionala" adierazpena inolako gutxiespen-zentzurik gabe erabiltzen dut, ez baitzait iruditzen horrelako jokabide politikoak, halabeharrez, kutsu negatiboa duenik. Izan ere, metodo demokratikoak eskaintzen dituen aukerez abantaila hartu eta politikagintza herritar guztien eskura dagoen eginkizuna izan dadin bide berriak urratzea izan daiteke gizarte-erakundeek aurrean duten erronka garrantzitsuenetariko bat. Beste era batera esanda, gizarte-erakundeek hausnarketa egin beharko lukete printzipio demokratikoaren erabilpen intensiboa egiteko posibilitateaz (indarrean dauden parte hartzeko aukerak erabili, orain arte kasu guztietan gertatu ez bezala) erabilpen estensiboa egiteko posibilitateari uko egin gabe (parte hartzeko aukerak ahalik eta esparru gehienetara zabalzea, esate baterako heziketa, ingurugiroa edota defentsa esparruetara).

Gure artean, eta baketze-prozesuarekin batera gertatzen ari diren aldaketak kontuan izanik, badago epe laburrera iragarpen bat egiterik. Izan ere, orain arte hainbat gizarte-erakundeek ez du bere eskakizunak bideratzeko prest zegoen aliatu politikorik aurkitu, eta aktore politiko bat horretarako prest agertu denean, honek ez zuen parte hartzen bete-betean joko instituzionalean. Izen-abizenak aipatzearen, lehen HB zenak, orain EH bezala berbataiatuak, bere burua gizarte-erakunde askoren beso parlamentario bezala aurkezturik, ez ditu sistematikoki elkarte hauen eskakizunak politikagintzaren esparru erabakigarria bideratu, esparru instituzionalak legitimatzerik ez zuelakoan. Jakina, gizarte-erakundeek beste aliatu politikorik ere izan dute alderdi politikoen artean, baina hauek edo oso selektiboak izan dira eskakizunak bereganatzen (PNVk edo EAK, esaterako, lagundu egin dituzte mugimendu antimilitaristaren hainbat eskakizun hala nola desobediencia zibilaren estrategia, baina nekez esan daiteke jokabide bera izan dutenik mugimendu ekologistarekin) edo, aktore hauek laguntzeko prest agertu direnean, ahulegiak izan dira, ez hain errepresentatiboak (EBren kasua aipatzea egokia litzateke hemen). Beraz, itxura guztien arabera zabalzen ari den euskal politikaren aro berrian, EH joko instituzionalean parte hartzeko prest eta borondatez agertzen den neurrian, orain arte politikagintzaren esparru erabakigarritik at gelditu diren hainbat eskakizun polikromok (berdeak, gorriak, zuriak, bioletak) norik bideratu izango dute. Honek guztiak ez du esan nahi, ordea, bideratze horrek arrakasta substantiboa lortuko duenik ezinbestean. Baina, agenda politikoa dauden neurrian, arrakasta prozedimentala lortzen dute, eta hori, balizko arrakasta sustantiboaren aurrebalidintza den neurrian, gutxienezko lorpena da gizarte-erakundeentzat.

Laburbilduz, gizarte-erakundeek erronka garrantzitsuak dituzte aurrean zabaldu berri den aro politikoa. Haietatik, gure mugimendu-gizartean termino erlatiboetan hain ugariak diren erakundeen eskakizunak kaleratzeaz gain, agenda politiko instituzionalera *ere* eramatea da lehentasunezko erronka. Gizarte-erakundeek instituzioetan presentzia izateko bidea horretarako prest dauden alderdi politikoen gain eragina izanez lortzen da. Eraginaren politika horrek eskatuko du, dudarik gabe, geroz eta profesionalizazio-maila altuagoa, elkartasun-mugimenduek edo bakearen aldeko mugimenduak egin duten bezala. Gizarte-erakundeek

planteaturiko eskakizunak politikagintzaren bi jokalekuetan dauden neurrian, kalean eta instituzioetan, gure gizartearen egoera normalduz (baketuz) doalako seinalea izango da. Protesta-ekintzak nagusi badira, horrek aditzera emango luke aktore batzuek ez dutela sinesten bide instituzionalean, horrek inplikatzan duen sistemaren legitimitate-hutsunearekin. Hori izan da orain arteko egoera, euskal protesta-zikloarena. Gatazka esparru instituzionalera eramaten bada, horrek mahai gainean gai gehiago jar daitekeela adieraziko du eta, ondorioz, jende gehiagok sinesten duela eztabaida publikoak eskaintzen dituen posibilitateetan. Baina hori gerta dadin, batzuek frogatu egin beharko dute eztabaidagaien zerrenda benetan zabaldu dela eta, beste batzuek, hauteman beharko dute eztabaidagaien zerrenda hori irekiago bezala. Hori gertatzen den egunean, gure gizartea zertxobait “aspergarriagoa” izango da, baina baita baketsuagoa ere.

### **Aipaturiko bibliografia**

- Cruz, R., (1998): “El mitin y el motín. La acción colectiva y los movimientos sociales en la España del siglo XX”, *Historia Social* 31, 137-152.
- GEAS (Grupo de Estudios de Asociacionismo y Sociabilidad), (1998): *España en sociedad. Las asociaciones a finales del siglo XIX*, Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha, Cuenca.
- Granja, J. L. de la, (1995): *El nacionalismo vasco. Un siglo de historia*, Tecnos, Madril.
- Martínez, Z., (1998): “Participación en formas de acción colectiva y potencial de movilización en el País Vasco”, *Inguruak* 21, 147-175.
- Meyer, D. S. eta Sidney, T., (eds.), (1998): *The Social Movement Society. Contentious Politics for a New Century*, Rowman and Littlefield, Lanham, Maryland.
- Neidhardt, F. eta Dieter, R., (1993): “Auf dem Weg in die `Bewegungsgesellschaft´? Über die Stabilisierbarkeit sozialer Bewegungen”, *Soziale Welt*, 44 (3), 305-326.
- Tarrow, S., (1989): *Democracy and Disorder. Protest and Politics in Italy, 1965-1975*, Clarendon Press, Oxford.
- , (1997): *El poder en movimiento. Los movimientos sociales, la acción colectiva y la política*, Alianza, Madril.
- Traugott, M., (1995): *Repertoires and Cycles of Collective Action*, Duke University Press, Durham eta Londres.